

2015ERAKO AURREKONTUAREN AURREPROIEKTUA

ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS 2015

**"ULIAZPI" FORU ERAKUNDE
AUTONOMO ADMISNITRATIBOA**

ULIAZPI, Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Autonomoa, 8/1989 Foru Arauaren bitartez sortu zen, eta bere helburua, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren eta adimen-urritasun larria duten pertsonen arreta egitea da, hainbat eratako zerbitzu eskainiz, hala nola: egoitzazkoak, eguneko zentroa, atsedeen zerbitzua, etxeko laguntza, eta abar.

Uliazpiren Eginkizuna, alde horretatik, Gipuzkoako Lurraldean adimen-urritasuna dutenen eta beren familien bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten zerbitzuak eta laguntzak ematea da.

Horretarako, arreta orokor eta pertsonalizatua eskaintzen dugu, irizpide etikoez, eraginkortasunez eta berrikuntzez baliatuz erabiltzaileak, beren familiak eta erakunde barruko pertsonak pozik egon daitezen, betiere sozialki arduratsua den erakunde gisa jokatzuz.

Uliazpik hainbat laguntza eta era askotako zerbitzuak eskaintzen ditu, adimen-urritasuna eta laguntza-premia dituzten pertsonen behar eta nahiei egokituak

Uliazpik eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira:

- Etxebizitza
- Eguneko Arreta
- Atsedena edo Aldi Baterako Egonaldiak
- Laguntza Teknikoa

Zerbitzu horien bidez, erabiltzaile bakoitzak banan-banako arreta jasotzen du, "pertsonaren araberako plangintzan"

**ORGANISMO AUTÓNOMO
FORAL ADMINISTRATIVO
"ULIAZPI"**

El Organismo Autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa ULIAZPI fue creado mediante Norma Foral 8/1989 y su fin es la atención de las personas con discapacidad intelectual grave residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a través de distintos tipos de servicios como son: residenciales, centro de día, respiro, apoyo en el hogar, etc.

La Misión de Uliazpi es proporcionar servicios y apoyos que contribuyen al desarrollo de la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias en Gipuzkoa.

Para ello, proporcionamos una respuesta integral personalizada que busca, con criterios éticos, eficiencia e innovación, la satisfacción de las personas usuarias, familias y las personas de la organización, actuando como una entidad socialmente responsable.

Uliazpi proporciona un conjunto de apoyos y servicios diversos, flexibles y adaptados a las necesidades y deseos de las personas con discapacidad intelectual y necesidades de apoyo.

Los servicios que proporciona Uliazpi son:

- Vivienda
- Atención de Día
- Respiro o Estancias Temporales
- Apoyo Técnico

Estos servicios se fundamentan en una atención individualizada basada en una "planificación centrada en la persona"

oinarritua, eta horren bidez bizikalitatearen dimentsio ugariak lehenetsi eta zehazten dira (ongizate fisiko nahiz emozionala, garapen pertsonala, harremanak eta gizarteratzea, aukerak eta erabakiak hartzea) bakoitzaren behar eta lehentasunen arabera.

Etxebizitza, eguneko arreta eta atseden zerbitzuak Zentroen bidez eskaintzen dira: Donostia (Donostian), Ategorrieta (Donostian), Fraisoro (Zizurkilen), Zubieta (Hondarribian), Zubillaga Dk. (Bergaran) eta Egogain Zentroko solairu bat erabiliz (Eibarren).

Jarraian aipatzen diren atalak kontuan izanik prestatu da 2015eko aurrekontua:

- a) Egungo egoera ekonomikoa.
- b) Ogasun Departamentuaren jarraibideak, baita Gizarte Politikakoak ere.
- c) 2014ko ekitaldiko aurrekontua eta itxierako aurreikuspenak.
- d) Zerbitzu eta baliabide desberdinen kudeaketan egindako egokitzapenak.

3. Kapituluako diru-sarrerari dagokienez Gizarte Politikako Departamentuak prestatu duen eta izapidetzen ari den menpekotasunaren, urritasunaren eta buru-nahasmenduaren arretarako zentroetako pertsona erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa arautzen duen Foru Dekretuaren zirriborroa izan da kontuan. Pertsona erabiltzaileen prestazio eta pentsioetarako aurreikusi den gehikuntza % 0,25ekoa da 2015 urterako.

Aktibo finantzarioen 8. kapitulari dagokionez, hala sarreretan nola gastuetan gehikuntza bat egitea aurreikusi da Uliazpiko pertsonalari emango zaizkion kontsumo-maileguen

mediante la cual se prioriza y concretan las diversas dimensiones de calidad de vida (bienestar físico y emocional, desarrollo personal, relaciones e inclusión social, elección y toma de decisiones...) en función de sus necesidades y preferencias.

Los servicios de vivienda, atención de día y respiro se prestan a través de los Centros: Donostia (en Donostia), Ategorrieta (en Donostia), Fraisoro (en Zizurkil), Zubieta (en Hondarribia), Dr. Zubillaga (en Bergara) y la utilización de una planta del Centro Egogain (en Eibar).

El presupuesto 2015 se ha elaborado teniendo en cuenta los siguientes aspectos:

- a) Coyuntura económica actual.
- b) Directrices del Departamento de Hacienda, así como del de Política Social.
- c) Presupuesto y previsiones de cierre del ejercicio 2014.
- d) Ajustes en la gestión de los distintos servicios y recursos.

Con relación a los ingresos en el Capítulo 3, se ha tenido en cuenta el borrador de Decreto Foral regulador de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia, la discapacidad y el trastorno mental, que el Departamento de Política Social ha elaborado y está tramitando. La previsión de incremento contemplada para las prestaciones y pensiones de las personas usuarias es de 0,25% para el 2015.

En lo referente al capítulo 8 de activos financieros, se ha previsto un incremento tanto en ingresos como en gastos para hacer frente a un posible acuerdo del Convenio Colectivo

baldintzetan aldaketa bat kontuan izango duen laneko Hitzarmen Kolektiboaren akordio posible bati aurre egin ahal izateko.

Jarraian, 2015eko aurrekontuan izango diren esku-hartzeen arlorik garrantzitsuenak azaltzen dira.

→ ERABILTZAILE ETA FAMILIEN ARLOA

2015eko aurrekontuan, beren autonomia garatzeko, mantentzeko eta areagotzeko beharrezkoa den entrenamendua eskaintzeko xedea duten programez gain, pertsona horiek eguneroko bizitzako jardura eta egoeretan parte har dezatela sustatuz.

Familiatzako laguntza-zerbitzuei dagokienez, gehikuntza xume bat aurreikusi da 2015erako, familietan, batez ere opor-garaietan, gero eta handiagoak diren premiei aurre egiteko.

→ PERTSONEN ARLOA

2015eko aurrekontuan, zerbitzu eta programa desberdinen premiei erantzungo dien plantilla nolakoa izango den zehaztu da.

Uliazpiko Gobernu Batzordeak 2012ko azaroaren 28an onetsitako "antolamendu-aldaketaren" ondorioz Lanpostuen Zerrendan egindako aldaketak aipatu behar ditugu, honek hori pixkanaka aplikatzea zeukan aurreikusita.

Halaber, arreta berezia merezi du Uliazpin euskararen erabileraren Normalizaziorako Plan berria aplikatzearen ondorio den erreferentzia ekonomikoak, horrek ahalegin ekonomiko eta pertsonal handia egin

laboral que contemple una modificación de las condiciones de los préstamos de consumo que se concedan al personal de Uliazpi.

Seguidamente se exponen las áreas de intervención más relevantes en el presupuesto 2015.

→ ÁREA PERSONAL USUARIO Y FAMILIAS

El presupuesto 2015, contempla los mismos programas encaminados a proporcionar el entrenamiento necesario de cara a desarrollar, mantener y maximizar su autonomía, procurando una participación de estas personas en las actividades y situaciones de la vida cotidiana.

En relación a los servicios de apoyo a las familias, se ha contemplado para el 2015 un pequeño incremento que hará frente a las crecientes necesidades de las familias sobre todo en períodos vacacionales.

→ ÁREA PERSONAS

En el presupuesto 2015 se ha contemplado la plantilla que responde a las necesidades de los distintos servicios y programas.

Debemos señalar las modificaciones recogidas en la Relación de Puestos de Trabajo fruto del "cambio organizativo" aprobado por la Junta de Gobierno de Uliazpi con fecha 28 de noviembre de 2012, que preveía una aplicación progresiva del mismo.

Asimismo especial atención merece la referencia económica que se deriva de la aplicación del nuevo Plan de Normalización del uso del euskera en Uliazpi, que va a conllevar un importante esfuerzo tanto económico

behar izatea ekarriko du, eta horrenbestez, beharrezko baliabideak jarri beharko dira hori lortzeko; 2015etik 2017rako tarte horretan aurreikusi dugu baliabide horiek jartzea.

Uliazpiko Hitzarmen Kolektiboari dagokionez, 2014ko urrian oraindik sindikatuetakoa ordezkariekin inolako akordiorik lortu ez bada ere, gauzatu daitekeen akordio batetik sortu daitezkeen ondorio ekonomikoak aurreikusi dira.

→ INBERTSIOAK

2015eko aurrekontuan zerbitzuen mantentze-lanerako eta aplikazio informatiko berrien garapenerako beharrezkoak diren inbertsioez gain Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren eta Uliazpiren artean dugun lankidetzaren hitzarmenaren bigarren zatia gehitu da, Zubieta Zentroko energia sortzeko sistema birmoldatzeko lanak finantzatzeko eta gauzatzeko.

→ BESTE BATZUK

2015 urtean zehar 2012-2015 Plan Estrategikoaren barruan sartzen den 2012-2015 Kudeaketa Plana garatuko dugu eta zehaztutako Kudeaketa Ereduan aurrera egiten jarraituko dugu, Feaps Kalitate Eredua bereziki azpimarratuz. Berdintasun Plana ere eguneratu egingo dugu.

como personal y por tanto exigirá articular los medios necesarios para su consecución y que hemos previsto para un período comprendido entre el 2015 y 2017.

En lo referente al Convenio Colectivo de Uliazpi, aunque a fecha de octubre del 2014 no se ha llegado aún a un acuerdo con la representación sindical, se han contemplado las consecuencias económicas que pudieran derivarse de un hipotético acuerdo.

→ INVERSIONES

En el presupuesto del 2015 se incorporan además de las inversiones necesarias para el mantenimiento de los servicios y el desarrollo de nuevas aplicaciones informáticas, la segunda parte del convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio y Uliazpi para la financiación y ejecución de las obras de remodelación del sistema de generación energética del Centro Zubieta.

→ OTROS

. Durante el 2015 desarrollaremos el Plan de Gestión 2012-2015, que se enmarca en el Plan Estratégico 2012-2015 y seguiremos avanzando en el Modelo de Gestión definido, haciendo especial hincapié en el Modelo Calidad Feaps. También actualizaremos el Plan de Igualdad.





01 Departamentua. "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde
Autonomoa
Departamento 01. Organismo Autónomo Foral "Fundación
Uliazpi"

01. Programa. "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde
Autonomoa
Programa 01. Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN
ULIAZPI"

Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa			
Departamentua Departamento	01	Sekzioa Sección	01
		Programa kodea Código programa	01
		Funtzioa Función	311
Helburuak / Objetivos			
01 Estrategia eta Itunak prozesua./ Proceso Estrategia y Alianzas.			
Ekintzak / Acciones		Indikatzaileak Indicadores	Kopurua Cuantificación
01.1	Helduen Egoitza Zerbitzua./ Servicio Residencial personas adultas.	Plaza kop./ Nº plazas	219
01.2	Eguneko Arreta Zerbitzua./ Servicio Atención de Día.	Plaza kop./ Nº plazas	289
01.3	Helduen Atsedeen Zerbitzua./ Servicio Respiro personas adultas.	Plaza kop./ Nº de plazas	10
01.4	Adingabeentzat Etxebizitza Zerbitzua./ Servicio Vivienda Menores.	Plaza kop./ Nº plazas	5
01.5	Adingabeentzat Atsedeen Zerbitzua./ Servicio Respiro Menores.	Plaza kop./ Nº plazas	1
01.6	Etxean laguntza emateko programan artatutako pertsonen kopurua./ Nº de personas atendidas en el programa de apoyo en el hogar.	Pertsona kop./ Nº de personas	6
01.7	Etxebizitza zerbitzurako itxaron zerrendara gehitzen diren pertsona kopurua./ Nº de personas que se incorporan a la lista de espera del Servicio de Residencia.	Pertsona kop./ Nº de personas	6
01.8	Eguneko arreta zerbitzuko itxarote-zerrendara gehitzen diren pertsona kopurua./ Nº de personas que se incorporan a la lista de espera del Servicio de Centro de Día de Uliazpi.	Pertsona kop./ Nº de personas	3
01.9	Uliazpiko atsedeen zerbitzura gehitzen diren pertsona berri kopurua./ Nº de personas nuevas que se incorporan al servicio de respiro de Uliazpi.	Pertsona kop./ Nº de personas	10



01 Departamentua. "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde
Autonomoa
Departamento 01. Organismo Autónomo Foral "Fundación
Uliazpi"

01 Programa. "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde
Autonomoa
Programa 01. Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN
ULIAZPI"

Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

Departamentua Departamento	01	Sekzioa Sección	01	Programa kodea Código programa	01	Funtzioa Función	311
Helburuak / Objetivos							
01 Estrategia eta Itunak prozesua./ Proceso Estrategia y Alianzas.							

Ekintzak / Acciones	Indikatzaileak Indicadores	Kopurua Cuantificación
01.10 Atsedeen zerbitzura gehitzen diren pertsona berrien kopurua./ Nº de personas nuevas que se incorporan al Servicio de Respiro de Uliazpi.	Pertsona kop./ Nº de personas	15
01.11 Etxebizitza zerbitzuaren betetze maila./ Grado de ocupaciones del servicio de vivienda.	Okupazio%/ %de ocupación	100%
01.12 Eguneko arretaren betetze maila./ Grado de ocupaciones del servicio de atención diurna.	Okupazioren %/ %de ocupación	96%
01.13 Aldi baterako egonaldi baten maila./ Grado de ocupación del servicio de estancias temporales.	Okupazioaren %/ %de ocupación	75%
01.14 Kalitate Ereduaren akreditazioa. Hedate maila./ Acreditación Modelo Calidad Feaps. Nivel despliegue.	Gauzatze %/ %ejecución	100%
01.15 Uliazpirekin itun kopurua./ Nº de alianzas con Uliazpi.	Itun kop./ Nº alianzas	41
01.16 Zaintzaile nagusia emakume bat izanik egoitza-zerbitzuan parte hartzen duten pertsonen portzentajea./ Porcentaje de personas que siendo cuidadora principal una mujer se incorporan al servicio residencial.	Pertsonen %/ % de personas	90%
01.17 Zaintzaile nagusia emakume bat izanik Uliazpiren atsedeen-zerbitzuan parte hartzen duten pertsonen portzentajea./ Porcentaje de personas que siendo cuidadora principal una mujer se incorporan al servicio de respiro de Uliazpi.	Pertsonen %/ % de personas	85%
01.18 2014-2015 urteetarako kudeaketa Plana betetzea./ Cumplimiento del Plan de Gestión 2014-2015.	Planen Kop./ Nº de planes	1



01 Departamentua. "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde
Autonomoa
Departamento 01. Organismo Autónomo Foral "Fundación
Uliazpi"

01. Programa. "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde
Autonomoa
Programa 01. Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN
ULIAZPI"

Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa							
Departamentua Departamento	01	Sekzioa Sección	01	Programa kodea Código programa	01	Funtzioa Función	311
Helburuak / Objetivos							
02 Erabiltzaileen bizi kalitatea hobetzeko Banakako Plangintza prozesua./ Proceso Planificación Individual para la mejora de la Calidad de vida de los usuarios.							
Ekintzak / Acciones				Indikatzaileak Indicadores		Kopurua Cuantificación	
02.1 Mendekotasun handia 3. maila duten pertsona kopurua./ Nº de personas con gran Dependencia Grado 3.				Pertsona kop./ Nº de personas		270	
02.2 Banakako Programa duten pertsonen ehunekoa./ % de personas que disponen de un Programa Individual.				Pertsonen %/ % de personas		100%	
02.3 Banakako Programen betetze maila./ Cumplimento de Programas Individuales.				Helburuaren %/ %de objetivos		85%	
02.4 Familiekin edo erabiltzaileekin adostutako Banakako Programen indizea./ Indice de Programas Individuales consensuados con las personas usuarias o familias.				Pertsonen %/ %de personas		100%	
02.5 Arriskuagatik edo narriadura prozesuagatik jarraipen berezia egiten zaien pertsonen ehunekoa./ % de personas a las que se realiza un seguimiento especial por riesgo o proceso de deterioro.				Pertsonen %/ % de personas		100%	
02.6 Aurrerapen txostena duten pertsonen ehunekoa, jokaera arazo larriak dituzten pertsona guztiekiko./ % de personas que disponen de un informe de progreso respecto del total de personas con graves problemas de conducta.				Pertsonen %/ % de personas		100%	
02.7 Urteroko berrikuste medikoa egin zaien pertsonen ehunekoa, analitika orokorra barne./ % de personas al que se ha aplicado la revisión médica anual, incluida la analítica general.				Pertsonen %/ % de personas		100%	
02.8 Bizi-kalitate orokorreko adierazlea./ Indice de calidad de vida general.				5 punturen gaineko batezbesteko balorazioa./ Valoración media sobre 5 puntos		3,2	



01 Departamentua: "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde
Autonomoa
Departamento 01. Organismo Autónomo Foral "Fundación
Uliazpi"

01 Programa: "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde
Autonomoa
Programa 01. Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN
ULIAZPI"

Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

Departamentua Departamento	01	Sekzioa Sección	01	Programa kodea Código programa	01	Funtzioa Función	311
-------------------------------	-----------	--------------------	-----------	-----------------------------------	-----------	---------------------	------------

Helburuak / Objetivos

- 02 Erabiltzaileen bizi kalitatea hobetzeko Banakako Plangintza prozesua./
Proceso Planificación Individual para la mejora de la Calidad de vida de los usuarios.

Ekintzak / Acciones

Indikatzaileak
Indicadores

Kopurua
Cuantificación

- 02.9 Autodeterminazioan bizi-kalitate indizea./
Índice de calidad de vida en autodeterminación.

5 puntuaren
gaineko
batezbesteko/
Valoración media
sobre 5 puntos

2,7

- 02.10 Eskubideetan bizi-kalitate adierazlea./
Índice de calidad de vida en derechos.

5 punturen gaineko
batezbesteko
balorazioa./
Valoración media
sobre 5 puntos

2,7



01 Departamentua. "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde
Autonomoa
Departamento 01.Organismo Autónomo Foral "Fundación
Uliazpi"

01. Programa. "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde
Autonomoa
Programa 01. Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN
ULIAZPI"

Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa			
Departamentua Departamento	01	Sekzioa Sección	01
Programa kodea Código programa	01	Funtzioa Función	311
Helburuak / Objetivos			
03 Senideekiko harremanak prozesua./ Proceso relación familias.			
Ekintzak / Acciones		Indikatzaileak Indicadores	Kopurua Cuantificación
03.1	Atsedeen zerbitzuan parte hartzen duten familia kopurua./ Número de familias que participan en los programas de respiro.	Familien kop./ Nº de familias	95
03.2	Atsedeen zerbitzua erabiltzen duten eguneko arreta zerbitzuko pertsona erabiltzaileen ehunekoa./ % de personas usuarias del Centro de Día que utilizan el Servicio de Respiro.	Pertsonen %/ % de personas	60%
03.3	Senideen Komisioarekin edo/eta beraien ordezkariarekin izandako bilera kopurua./ Nº de reuniones celebradas con las comisiones familiares y/o sus representantes.	Bilera kop./ Nº de reuniones	15
03.4	Ekintza zuzentzaileak jarri zaien kexa, erreklamazio edo iradokizunen ehunekoa./ Porcentaje de quejas, reclamaciones y sugerencias recibidas para las que se han implantado acciones correctoras.	Ekintza zuzentzaile %/ % acciones correctoras	100%
03.5	Gogobetetze-galdeketeri erantzuten dioten familieen ehunekoa./ Porcentaje de familias que responden a la encuesta de satisfacción.	Familien %/ % de familias	75%
03.6	Senide-galdeketeran oinarrituz lortutako asebetetze maila./ Índice de satisfacción calculado a partir de la encuesta familiar.	Gogobetetze maila./ Índice satisfacción	8,5/10
03.7	Atsedeen-programan parte hartzen duten eta zaintzaile nagusia emakume bat duten familien portzentajea./ Porcentaje de familias que participan en el programa de respiro, y su cuidadora principal es una mujer.	Familien %/ % de familias	90%
03.8	Mendeko pertsonak zaintzeko harremanetan elkarrekikotasuna bultzatzearen familiekin egiten diren jardueren kopurua./ Número de actuaciones con familias para favorecer la reciprocidad en las relaciones de cuidados a las personas dependientes.	Jardueren kop./ Nº actuaciones	2



01 Departamentua: "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde
Autonomoa
Departamento 01. Organismo Autónomo Foral "Fundación
Uliazpi"

01. Programa: "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde
Autonomoa
Programa 01. Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN
ULIAZPI"

Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

Departamentua Departamento	01	Sekzioa Sección	01	Programa kodea Código programa	01	Funtzioa Función	311
Helburuak / Objetivos							
04 Ekonomia eta Ondarea prozesua./ Proceso Economía y Patrimonio.							

Ekintzak / Acciones		Indikatzaileak Indicadores	Kopurua Cuantificación
04.1	1. Kapitularen gauzatzearen ehunekoa, guztikoarekiko./ % Ejecución del Capítulo 1 respecto al total.	Gauzatze %./ % ejecución	99%
04.2	2. Kapitularen gauzatzearen ehunekoa, guztikoarekiko./ % Ejecución del Capítulo 2 respecto al total.	Gauzatze %./ % ejecución	100%
04.3	6. Kapitularen gauzatzearen ehunekoa, guztikoarekiko./ % Ejecución del Capítulo 6 respecto al total.	Gauzatze %./ % ejecución	98%
04.4	Esleipen-irizpide gisa enpresak genero-berdintasunerako egin dituen ekintzak balioesten dituzten lehiaketa-deialdien ehunekoa./ % de licitaciones en los que se valora como criterio de adjudicación las acciones destinadas a la igualdad de género realizadas por la empresa.	Lizitazioen %/ % de licitaciones	100%
04.5	Energiaren kontsumoa, erabiltzaile bakoitzeko (ura, elektrizitatea, erregaia)/ Consumo de energía (agua, electricidad, combustible) por usuario.	Euroren kop./ Nº de euros	1.200
04.6	Enplegu-zentro bereziei egindako hitzarmenen ehunekoa./ Porcentaje de contrataciones a Centros Especiales de Empleo.	2 Kap.aren gastuaren % %gasto sobre el Cap.2	30%
04.7	Koste-plazaren igoera aurreko ekitaldiarekiko./ Incremento del coste plaza en relación al ejercicio anterior.	Koste-plaza igoera %/ % incremento coste plaza	1,5%



01 Departamentua. "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde
Autonómoa
Departamento 01. Organismo Autónomo Foral "Fundación
Uliazpi"

01. Programa. "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde
Autonómoa
Programa 01. Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN
ULIAZPI"

Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa							
Departamentua Departamento	01	Sekzioa Sección	01	Programa kodea Código programa	01	Funtzioa Función	311
Helburuak / Objetivos							
05 Pertsonen kudeaketa prozesua./ Proceso de gestión de personas.							
Ekintzak / Acciones						Indikatzaileak Indicadores	Kopurua Cuantificación
05.1 Emakumeek garatutako prestaketa orduen ehunekoa, plantilarako aurreikusi direnekiko./ % de horas de formación desarrolladas por mujeres respecto al total previsto para la plantilla.						Ordu %/ % horas	75%
05.2 Gizonek garatutako prestaketa orduen ehunekoa, plantilarako aurreikusi direnekiko./ % de horas de formación desarrolladas por hombres respecto al total previsto para la plantilla.						Ordu %/ % de horas	25%
05.3 Jasotako prestakuntzaren aplikagarritasuna./ Aplicabilidad de la formación recibida.						aplikagarritasunaren %/ % aplicabil.	85%
05.4 Gaixotasun arruntagatik absentimoaren ehunekoa./ % Absentismo enfermedad común.						Plantilako ordu guztien %/ % horas totales plantilla	4,5%
05.5 Hitzarmen laboralen garapena./ Evolución contrataciones laborales.						Abendua/ diciembre	340
05.6 Gogobetetze indizea, Pertsona-inkestan oinarritua./ Índice de satisfacción a partir de la encuesta de personas.						10 punturen gaineko batezbesteko balioa./ Valoración media sobre 10 puntos	6,5
05.7 Erakundeko zuzendaritza-postuetan dauden emakumeen ehunekoa./ % de mujeres en puestos directivos de la entidad.						Emakumeen %/ % de mujeres	%40



01 Departamentua: "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde
Autonomoa
Departamento 01. Organismo Autónomo Foral "Fundación
Uliazpi"

01. Programa: "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde
Autonomoa
Programa 01. Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN
ULIAZPI"

Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

Departamentua Departamento	01	Sekzioa Sección	01	Programa kodea Código programa	01	Funtzioa Función	311
-------------------------------	-----------	--------------------	-----------	-----------------------------------	-----------	---------------------	------------

Helburuak / Objetivos

- 05 Pertsonen kudeaketa prozesua./
Proceso de gestión de personas.
- 06 Ezagutza eta berrikuntza kudeaketa prozesua./
Proceso de gestión del conocimiento y de la innovación.

Ekintzak / Acciones	Indikatzaileak Indicadores	Kopurua Cuantificación
05.8 Aitortzearen gogobetetasuna./ Satisfacción con el reconocimiento.	Balorazioa, 10a arte Nivel valorado sobre 10	6,5
05.9 Prozesutan parte hartzen duten pertsona kopurua./ Nº de personas que participan en Procesos.	Pertsona kop./ Nº de personas	34
05.10 Kategoriaz igotzen diren pertsona kopurua, aukera guztiakiko./ Nº de personas que promocionan de categoría sobre el total de oportunidades.	Pertsonen %/ % de personas	100%
06.1 Uliazpiko profesionalak argitaratu edo espezializatutako foroetan esku hartze kopurua./ Nº de publicaciones e intervenciones en foros especializados por profesionales de Uliazpi.	Esku-hartze gehi argitalpen kop./ Nº intervenciones más publicaciones	6
06.2 Ezarritako ekintza berritzaile kopurua./ Nº de acciones innovadoras implantadas.	Ekintza kop./ Nº acciones	5
06.3 Abian jarritako ikerkuntza-proiektu kopurua./ Nº de proyectos de investigación en marcha.	Proiektu kop./ Nº proyectos	2
06.4 Praktiketako ikasle kopurua./ Alumnado en prácticas.	Pertsona kop./ Nº de personas	30